



Euskara Abian

Lehen Hezkuntzarako 6. mailarako Euskara Abian liburua Zubia Editoriala, S. L. ren eta Santillana Educación, S. L. ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, diseinatu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

TESTUA

Idoia Aranberri

Joseba Santxo

Ainhoa Basterretxea

IRUDIAK

Alex Macho

Enrique Morente

EDIZIOA

Ainhoa Basterretxea

Joseba Santxo

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo

Maite López-Sáez

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskemak eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

Edukien mapa

Unitateak	Irakurgaia	Harremanetan	Hizkuntzaren erabilera
1 Orbelak airez aire <i>Direnik ez da sinetsi behar</i> 4	Literatura-testua: <i>Deabrua doministikun</i> 6 Euskal elezaharra	<i>Begetarianoak eta haragijaleak</i> / Adostasuna eta desadostasuna 9	Izen eta aditz motak Perpauaren osagaiak 10
2 Odolak su gabe diraki <i>Txapelketa</i> 20	Azalpen-testua: <i>Euskaldunek asmatua</i> 22	<i>Aireportuan, zama barik</i> / Albisteak ematea 25	Izenordainak Aditzaren aspektua lehenaldian 26
3 Hau da kalejira! <i>Plazara, dantzara!</i> 36	Literatura-testua: <i>Telefonoko jolasa</i> 38 Mirta Fernández	<i>Mundu zaratatsu batean</i> / Onespena eta gaitzespena 41	Izenlagunak Perpauetako hitzen ordena 42
4 Gabonaldian <i>Gabonetarako planak</i> 52	Elkarrizketa: <i>Beso bat falta, baina bokazioa sobera</i> 54	<i>Dirt Jump</i> / Besteen arreta lortzea 57	Mugatzailak eta mugagabea. Erakusleak. Perpau bakunak 58

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA 68-69 Entzungaia: *Elurraren inguruko bitxikeriak*

5 Lurra iratzariz <i>Hamaika ikusteko</i> 70	Literatura-testua: <i>Itzulera</i> / J. M. Olaizola <i>Txiliku</i> 72	<i>Santa Ageda Eskoriatzan</i> / Ohiturak azaltzea 75	Deklinabidea: kasu gramatikalak Perpau osagarriak 76
6 Sormena eskura <i>Artista fin-fina</i> 86	Azalpen-testua: <i>Bertsotan ikasiz, gozatu</i> 88	<i>Miren Amurizarekin hizketan</i> / Gustuak adieraztea 91	Leku-denborazko deklinabidea Perpau erlatiboak 92
7 Ika, ika, ika... <i>Badator korrika!</i> 102	Biografia: <i>Edison gaztea</i> 104	<i>Nortasun kontuak</i> / Agurtzeko erak 107	Deklinabidea: zertaz, norentzat... Aditza: agintera 108
8 Teknolilura <i>Teknologia jolas</i> 118	Antzerkia: <i>Kaia eta gurasoak</i> / Aizpea Goenaga 120	<i>Interneten, idazten duzuna zara</i> / Mesfidantza eta konfiantza 123	Postposizioak Aditza: ahalera 124

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA 134-135 Entzungaia: *Galzorian*

9 Mundua etxe <i>Ameriketako Euskal Herria</i> 136	Literatura-testua: <i>Inonezko etxea</i> / Michael Ende 138	<i>Motxileroak</i> / Baieztapenak eta ezeztapenak 141	Baldintza-perpauak Denborazko perpauak 142
10 Hurbil eta urrun <i>Egun-pasa Lapurdi aldean</i> 152	Bertso jarriak: <i>Indabak eta arrautzak</i> / R.M. Azkue/Igor Elortza 154	<i>Amerikako osabari deika</i> / Telefono-elkarrizketak 157	Kontzesio-perpauak Kausazko perpauak 158
11 Lehengo eta oraingo <i>Historiaren lorratzak</i> 168	Azalpen-testua: <i>Nolakoak izango gara?</i> / Gaztezulo aldizkaria 170	<i>Nola egin manikia</i> / Jarraibideak ematea 173	Helburuzko perpauak Aditza: subjuntiboa 174
12 Hemen gaude <i>Itsasoa begi-bistan</i> 184	Literatura-testua: <i>Balea zuria</i> / Herman Melville 186	<i>Kermanen lagun berria</i> / Aginduak ematea 189	Konparazio-perpauak Ondoriozko perpauak 190

3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA 200-201 Entzungaia: *Olatuak hartzen*

Ortografia	Egiten jakin Testu-tipologia	Lexikoa	Literaturaz gozatzen	Amaierako jarduerak
S, x eta z noiz erabili 13	Azalpen-testua I: <i>Uretan plast!</i> 14	Hitz elkartuak I: aditzoina + izena 16	Ahoz eta idatziz: <i>Irakurle euskaldunari</i> «» 17	<i>Zotina, bai gauza harrigarria! Etxeko erremedioak</i> «» 18
Ts, tx eta tz noiz erabili 29	Eskabidea: <i>Londresko euskaldunei informazio eske</i> 30	Hitz elkartuak II: izena + aditzoina 32	Herri-ipuina: <i>Urrezko ohazala</i> «» 33	<i>Gazta lasterketa zoroa Asteburu ezinhobeia</i> «» 34
Marraren erabilera 45	Aurkezpen-gidoia: <i>Emakumeak zinemagintzan</i> 46	Atzizkiak: -tasun eta -keria 48	Herri-olerkia: <i>Sukaldean zein eder den</i> «» 49	<i>Itsu-itsuan Ipuinen magia</i> «» 50
Loturik eta bereiz idatzi behar diren hitzak 61	Autobiografia: <i>Lehen saio markatzailea</i> 62	Atzizkiak: -kizun, -kuntza, -tza, -men/-pen 64	Bertsolaritza: <i>Olentzero eta Bizarzuri...</i> «» 65	<i>Gabon-ohitura zaharra Kixmiren etorrera</i> «» 66

Eranskina: aditz-etaulak, deklinabidea, ...

A itsatsia 79	Kronika: <i>Ailegatu gaituk!</i> 80	Atzizkiak: -tza, -kada eta -eria 82	Koplak: <i>Eskeko zenbait kopla</i> «» 83	<i>Non erromeri, han Santa Mari Erromeria eguna</i> «» 84
R eta rr 95	Iruzkina: <i>Pantailari zorrotz begiratzuz</i> 96	Atzizkiak: -(k)era eta -keta 98	Olerkia: <i>Urtaroak</i> «» 99	<i>Liburuen historia laburra Liburuen tarteia</i> «» 100
Tt, dd, ñ eta ll kontsonante bustiak 111	Kexa-gutuna: <i>Futbola jaun eta gabe jolastokian</i> 112	Atzizkiak: -di/-ti, -degi/-tegi eta -te 114	Errima: <i>Belarri berdedun gizona</i> «» 115	<i>Adimenerako soinketa Udaleku bereziak</i> «» 116
H letra 127	Albistea: <i>DomiCopter: pizzak banatzeko modu berria</i> 128	Atzizkiak: -bera-, -koi eta -kor 130	Konparazioa: <i>Katakume zuria eta Goiza</i> «» 131	<i>Txipa aldatu beharra Istripua</i> «» 132

Eranskina: aditz-etaulak, deklinabidea, ...

Ba- aurizkia 145	Publizitatea: Sentsibilizazio-iragarkia 146	Atzizkiak: -garri, -gaitz eta -dun 148	Metafora: <i>Amodio- poema eta Maitatzen zaitudalako</i> «» 149	<i>Munduari itzulia... bizikletaz! Bizikletaren abantailak</i> «» 150
S, x eta z 161	Gida turistikoa: <i>Marrakex, mila eta bat ipuinetako hira</i> 162	Graduatzaileak 164	Ipuin literarioa: <i>Zorrozkailuaren ipuina</i> «» 165	<i>Mundua miniaturan Artea naturan</i> «» 166
Ts, tx eta tz 177	Gertakari historikoa: <i>Bizkaia zubia eraiki zenekoa</i> 178	Aurizkiak: <i>bir-/ber-, des-, aurre-, azpi-</i> 180	Eleberria: <i>Bastianen grina</i> «» 181	<i>Bitxigintza, uste baino zaharragoa Joxe Migel Barandiaran</i> «» 182
Koma, eta puntu eta koma 193	Artelanen deskribapena: <i>Jauregiaren burdinazko zaindaria</i> 194	Interjekzioak 196	Abentura-eleberria: <i>Nor dabil uhartean?</i> «» 197	<i>Sardina freskue! Bilboko Itsas Museoa</i> «» 198

Eranskina: aditz-etaulak, deklinabidea, ...

1

Orbelak airez aire



Basoko loreak...
bizitzaren koloreak!



Mintzamena

- 1 Deskribatu argazkia. Zer ageri da bertan?
- 2 Ezagutzen al duzu bertako belarren bat? Zertarako erabiliko ote dira?
- 3 Hartu al duzu inoiz sendabelarrik? Zertarako?
- 4 Sinesten al duzu belarren indar sendagarrian? Zergatik?





Entzumena



5 Entzun *Direnik ez da sinetsi behar... testua eta erantzun.* 

- Zertarako erabiliko du amonak bildutako belarra?

- Zer uste du amonak sorginei buruz?
- Eta bilobak?

6

Zer dakizu zuk sorginei buruz? Eta zer uste duzu?



Irakurmena

KATU BELTZA

Ipuin zahar batek dio emakume bat gauero gelditzen omen zela haritzen etxeko sukaldean eta gauero-gauero katu beltz bat agertzen zitzaiola leihotik.

Gau batean, emaztearen orde, senarra gelditu zen andre moztorra jantzita eta, katuak etortzean, honela esan omen zion:


–Gizonezkoa haritzen?

Eta gizonak erantzun:

–Katua hitz egiten?

Makila hartu eta hankan kolpe bat omen zion gero katuari.

Hurrengo egunean, auzoko atso bat besoa apurtuta azaldu zen, eta orduan konturatu ziren emakume hura sorgina zela.



7 Noizkoa da goiko ipuina?

8 Haren egilea nor den azaltzen al da nonbait? Zergatik ote?



Idazmena



9 Asmatu sorginen bat azaltzen den ipuina. Hasi honela:

Jokinek ez zuen sorginetan sinesten. Amonak beti esaten zion: «Ez direla ez da esan behar», baina Jokinentzat ume txikitxoak beldurtzeko baino ez ziren sorginen kontuak.



EGITEN JAKIN



Azalpen-testua

- Ba al dakizu zer den azalpen-testu bat?
- Irakurri duzu inoiz azalpen-testurik? Non?
- Zeri buruzkoa zen?

Unitate honetan azalpen-testuak modu egokian antolatzen eta informazioa era zuzenean ematen ikasiko duzu.



Doministiku

Baztan ibarreko herri batean, seme-alabarik ez zuten senar-emazte batzuk bizi omen ziren. Urte asko zeramatzaten haurra izan nahian, baina haien desioa ez zen inoiz betetzen. Belar mota guztiak probatu zituzten, eta ezer ere ez. Aralar mendira joan ziren, han mirariak egiten omen zituen iturri bat baitzegoen; andreak hango harri batez sabela **igurtzi** zuen, hura erremedio segurua baitzen, jendeak zioenez. Alferrik, ordea.

Hala bada, behin etxean zen andrea, ama izateko garaia joaten ari zitzaiola pentsatuz. Orduan, hasperen egin zuen eta senarrari esan zion:

–Ai! Edozer gauza emango nuke haur bat izateagatik!

–Baita nik ere! –erantzun zion senarrak.

Hori esanez batera, deabrua azaldu zitzaien.

–Haur bat izango duzue –esan zien–, baina nik, horren truke, etxe honetako zerbait hartuko dut niretzat. Ados al zaudete?

Senar-emazteek proposamena onartu zuten, deabruak haurra bera nahi zuela susmatu ere egin gabe.

Handik denboraldi batera, haurra jaio zen. Hura izan zen, hura, gurasoen poza! Hala, emandako hitza ahaztu zitzaien eta sekulako bataioa ospatzea erabaki zuten: **ahaide**, lagun eta bizilagun guztiak gonbidatuko zituzten. Festa ederra egiteko asmoz, aurkitu zuten **aharirik** ederrena erosi zuten.

Han inguruan bazen gizon bat, lanbide ezagunik gabea eta ahal zuenari atzaparrak erantsiz bizi zena. Ahariarena jakin zuenean, hura lapurtzea erabaki zuen, gero salduta diru-poltsa ederra irabaziko zuelako ustean. Asmo horrekin, etxeko guztiak oturuntzarako mahaiak lorategian prestatzen ari ziren bitartean, etxean sartu zen isilka-misilka. Etxean zer ikusiko... eta deabrua bera haurtxoaren sehas-karen ondoan.

–Zu ez al zara **gaizkina**? –galdetu zion gizonak.

–Bai, halaxe nauzu! –erantzun zion besteak–. Eta zu aharia lapurtzera datorrena zara! Lapurrak lapurrari, **nolako eltzea halako tapa** behar izaten da! Ez al da hala?

Gizona ez zegoen ados-ados horrekin. Bizitzeko lapurtzea gauza bat zen, baina deabru **lardats** izatea oso bestelako gauza zen! Hori pentsatzen bazuen ere, ez zuen ezer esan.

–Eta zu... nolatan hemen? –galdetu zion gizonak, deabrua han zergatik ote zegoen jakin nahian.

–Ni... Lapurrak lapurrari zor dio azaltzea. Jaioberri hau eramatera etorri naiz. Haurrak hiru bider egingo du doministiku bataiatu aurretik, eta inork «doministiku» esaten ez badu, niretzat izango da!

Horretan zeudela, etxekoak itzuli ziren. Deabrua ikusezin bihurtu zen, eta lapurra, berriz, ate baten atzean ezkutatu zen.

Handik pixka batera, haurrak doministiku egin zuen, baina inor ez zen ohartu. Gutxira, berriro egin zuen haurrak doministiku, eta lapurrak inork ez zuela deus esaten ikusirik eta deabruak haurra eraman ez zezan, ozenki esan zuen:

–Doministiku! Aharia lapurtu ezingo badut ere...

Birao eta mehatxu artean, deabruak haize-zurrumbilo handi bat sortuz alde egin zuen handik. Harrituta eta zer gertatzen zen ez zekitelarik, etxekoak hitz egin zuenaren bila hasi ziren, eta atearen atzean aurkitu zuten lapurra. Lapurrak gertatutakoaren berri eman zien eta esker oneko guraso haiek bataiora gonbidatu ez ezik, aharia ere eman zioten oparizat.

Euskal elezaharra

igurtzi: gauza bat beste baten gainean pasatu, behin eta berriz.

ahaide: senidea.

ahari: ardiaren arra.

gaizkin: deabrua.

lardats: zikina, zabarra.

birao: hitz iraingarria, madarikazioa.



Irakurgaia lantzen

Ulermena

- 1 Erantzun galderei.**
- Non dago kokatuta istorioa?
 - Zein zen senar-emazteen desioa?
 - Zer eskatu zien deabruak senar-emazteei guraria betetzearen truk?
 - Zer erosi zuten senar-emazteek festa ospatzeko? Zertarako?
- 2 Aukeratu. Zein baldintza betez gero eraman zezakeen deabruak haur jaioberria?**
- ☐ Haurrak hiru aldiz negar egin eta inork ez bazuen «doministiku» esaten.
 - ☐ Haurrak hiru aldiz doministiku egin eta inork ez bazuen «doministiku» esaten.
 - ☐ Haurrak hiru aldiz doministiku egin eta inork ez bazuen otoitz egiten.

Pertsonaiak

- 3 Azaldu zure hitzekin lapurra deskribatzen duen esaldi honen esanahia.**

Han inguruan bazen gizon bat, lanbide ezagunik gabea eta ahal zuenari atzaparrak erantsiz bizi zena.

- 4 Azaldu. Zein pertsonaiari dagokio esaldi bakoitza?**

Gaiztakeriaren ikur nagusia da, eta ez du aldaketarik bere izaeran.

Hasieran gaiztakeria egiteko prest badago ere, bere jokabidea aldatzen du, onerako.

Egitura

- 5 Azaldu. Zer gertatu zen irudiak adierazten duen egoeraren aurretik? Eta ondoren?**



Laburpena

- 6 Idatzi ipuinaren laburpena.**

★ Laburpena ongi egiteko, galdera hauei erantzun beharko diezu.

- Zer nahi zuten senar-emazteek?
- Nor azaldu zitzairen? Zer baldintza jarri zien?
- Nor azaldu zen gero? Zer gertatu zen?
- Nola bukatu zen dena?

Honela has zaitezke:

Baztango senar-emazte batzuek ...



Lexikoa

- 7 Bete hutsuneak hitz hauekin.**

lardats

birao

igurtzi

- Mailuarekin hatza jo zuen eta [] itsusiak esan zituen.
- Itxura [] duzu praka zikin eta urratu horiekin.
- Lanpara [] genuenean, jeinua atera zen barrutik.

- 8 Bilatu testuan esaera zahar honen baliokidea. Ondoren, azaldu zer adierazi nahi duten.**

Azeria eta otsoa, auzo batekoak.

Zure ekarpena

- 9 IKT. Bilatu Interneten «doministiku» hitzaren esanahia. Azaldu zein hizkuntzatatik hartu duen euskarak.**

- 10 Merezi al zuen lapurrak azkenean jasotako saria? Zein da, zure ustez, ipuin honen barruan dagoen irakaspenera?**



★ **1** Entzun *Begetarianoak eta haragijaleak* eztabaida eta adierazi esaldi hauek egia ala gezurra diren. 🔊

- Haritz begetarianoa da, eta Lukas, haragijalea.
- Haritzen ustez, barazkiek nahikoa proteina ematen dute bizitzeko.
- Lukasek, okelaz gain, barazkiak ere jaten ditu.
- Haritz animaliak hiltzearen kontra dago.
- Lukasi berdin dio animaliak hiltzea.
- Lukasen ustez, gizakien elikadurak lehentasuna du animalien bizitzaren aurrean.
- Biek uste dute barazkiekin gizadi guztia elika daitekeela.

2 Azaldu zure hitzez.

- Zein arrazoi ematen ditu haragijaleak okela jateko?
- Zein arrazoi ematen ditu begetarianoak okelarik ez jateko?
- Zer iritzi duzu zuk?

★ **3** Osatu taula adibideari jarraituz.

ADOSTASUNA	DESADOSTASUNA
<i>Ados nago.</i>	<i>Ez nago ados.</i>
Konforme nago.	
	Ez zait hala iruditzen.
Bat nator zurekin.	



4 Irakurri esaldi hauek eta adierazi zure iritzia, arrazoiak emanez.

Animaliek ez lukete zooetan bizi behar. Haien berezko lekuetan aske bizi behar lukete.

Kalean txakurrak lotuta eramatearen aldekoa naiz. Arriskuak saihesten dira.

Zezenketen alde nago. Arte ederra iruditzen zait eta toreroa eta zezena parez pare daude.

★ **5** **IKT.** Jarri bikoteka. Aukeratu aurreko ariketako gaietako bat. Bata alde egongo da, eta bestea kontra. Eman arrazoiak alde edo kontra egoteko.



Sabel-hiztunak

Miresmen handia diet nik sabel-hiztunei, **gauza gutxi** erabiliz ikus-entzuleoi barre eragiten digutelako. **Panpina bat**, **aulki bat** eta **irudi-men ikaragarria**; horixe da oholtzara eraman ohi duten guztia.

Panpinaren ahotik berba egiten dute, eta ez pentsa hori erraza denik! Trebezia hori lortzeko **denbora luzea** behar izaten da; izan ere, sabelaz mintzatzen dira, ezpaineekin zirkinik egin gabe.

- ★ 1 **IZEN MOTAK.** Erreparatu testuan nabarmendutako hitz bikotei eta sartu dagokien taulan.

IZEN ZENBAKARRIAK	ZENBATZAILEAK
	<i>gutxi</i>

IZEN ZENBAKAITZAK	IZENONDOAK
	<i>handia</i>

- 2 **IZEN ZENBAKARRIAK ETA IZEN NEURGAITZAK.** Osatu perpausak **ASKO** (izen zenbakarriekin) edo **HANDIA** (izen neurgaitzekin)

- Gose du txakur horrek; aspaldi ez du mokadurik jan.
- Komiki ditut; nahi baduzu, baten bat utziko dizut.
- Neska-mutil hurbildu dira euskararen aldeko auzoko jaira.
- Gurasoek poz hartu dute seme-alabak oholtzara ikustean.
- Bero dago; hobe dugu itzaletara joan.

- 3 **IZEN ZENBAKAITZAK.** Lotu ezkerreko izen zenbakaitz hauek eskuineko izenondoekin.

denbora ■	■ ona
egarri ■	■ zakarra
haize ■	■ laburra
min ■	■ handia
osasun ■	■ txikia

- 4 **IZEN NEURGARRIAK.** Bete esaldietako hutsuneak, parentesi arteko hitzak egoki ordenatuz.

- edan behar omen dira egunero. (ur / bi / litro)
- zabaldu dituzte hondartza zehar. (lau / hondar / tona)
- den marrazoa ikusi dute Bakioko uretan. (luze / metro / hiru)
- edan zuten bazkarian bildutakoek. (bat / ardo / botila)
- erabili ditugu gailetak egiteko. (ehun / irin / gramo)

JAKIZU

- **Neurriak adieraztean**, lehenik, kantitatea jar-tzen da (bi); gero, neurria (litro); eta azkenik, gaia (ur):

► *bi litro ur, sei kilo arroz...*

- Kontuz honelakoetan:

► *Baso bat ur (edukia)*

► *Ur baso bat (ontzia)*

5 ADITZA. Lotu zenbaki bidez perpausak osatzeko.

1. Liburutegian debekatuta dago...
2. Hondartzan beharrezkoa da...
3. Mendian hobe da...
4. Erosketak egiterakoan komeni da...

- ☐ ...zerrenda bat egitea.
- ☐ ...bidetik ez irtetea.
- ☐ ...ogitartekoa jatea.
- ☐ ...eguzkitarako krema ematea.

6 ADITZ JOKATUAK. Osatu esaldiak aditzokin.

komeni da jokatu zuten doaz
nahiago izaten dut dira

- Hara! Nora _____ ume horiek hain arin?
- Eskolan, _____ irakasleari adi egotea.
- Atzo lau pilotariak partida ederra _____.
- Udan entsalada _____ bazkaltzeko, eta zuk?
- Gure gurasoak munduko onenak _____.

7 ADITZ JOKATUGABEAK. Osatu aditzak.

- joan + -t(z)ea ➤ joatea
- hil + -t(z)en ➤ _____
- ibili + -t(z)era ➤ _____
- hartu + -t(z)eari ➤ _____
- ikasi + -t(z)eko ➤ _____

8 ADITZ JOKATUGABEAK. Aukeratu aditz jokatugabe egokiak perpausak osatzeko.

- Mirenek oso ondo daki ingelesez *mintzatzea/mintzatzen*.
- Amak etxeko leiho guztiak *ixteko/ixtera* agindu dizu.
- Aitonak *erretzeari/erretzen* utzi dio.
- Gose naiz; noiz joango gara *bazkaltzea/bazkaltzera*?
- Zatoz hona! Ez zara jostailuak *batzetik/batzeko* libratuko.

9 ADITZAREN ERABILERA. Idatzi perpausak emandako osagaiekin.

- Zuei hondartzara _____ (joan / gustatu)
➤ Zuei hondartzara joatea gustatzen zaizue.
- Nik zuri gero gurekin _____ (jolastu / utzi)
- Haiek gero bizikletaz _____ (ibili / joan)
- Aitak gu txokolatea _____ (hartu / eraman)
- Guk bizkotxoa _____ (prestatu / jakin)

10 ADITZAREN ERABILERA. Osatu perpausak, adibidean bezala.

- Nik / zuk / nirekin / xakean jardun / nahi
➤ Nik zuk nirekin xakean jardutea nahi dut.
- Zuk / nik / janaria prestatu / nahi
- Zuek / nahi / gu / ere / udalekura joan?
- Gurasoek / guk / euskaraz mintzatu / nahi
- Musikariek / nahiago / guk / haiekin / abestu

Izena eta aditza

- **Izena.** Izenak **zenbakarriak** (zenbatu ahal dira: *ardi bat, hiru lagun...*) edo **zenbakaitzak** (ezin dira zenbatu: *gose*) izan daitezke.
- Izen zenbakaitzen artean izen **neurgarriak** (3 litro ur, 100 gramo irin...) eta **neurgaitzak** (gose handia, bero itogarria...) bereizten ditugu.
- **Aditza.** Aditzak **jokatuak** (*joan gara, ari ginen...*) edo **jokatugabeak** (*egiten, ikustera, ibiltzeko...*) izan daitezke.
- Aditz jokatuak **ekintza nork eta noiz egiten duen** adierazten dute (*gatoz, gu etorri orain*); jokatugabeak, ez, ordea.



11 PERPAUSAREN OSAGAIK. Lotu izen-sintagmak eta aditz-sintagmak.

- Ume mainati horrek...
- Auzoko zenbait dendarik...
- Horko bide aldapatsua...
- Tropeleko txirrindulari guztiak...

...sasoi bete-betean daude.
 ...sarri-sarri negar egiten du.
 ...lehiaketan parte hartuko dute.
 ...mendi-gailurreraino heltzen da.

12 IZEN-SINTAGMA. Osatu izen-sintagmak hitz hauekin.

koloretsu	Zeruko	zaunkariak
Auzokoaren	Pasaiako	horiek
ilunak	Papagaiaren	portuko

- txakur
- itsasontziak
- hodei
- luma

13 ADITZ-SINTAGMA. Aukeratu aditz zuzena kasu bakoitzean.

- Zine-aktore ospetsu asko...
 - ☐ etorriko zaizkigu Donostiara.
 - ☐ Donostia bisitatuko dute.
 - ☐ Donostian pintxoak jan dituzte.

- Lehiaketako parte-hartzaile azkarrek...
 - ☐ badakizkitez galderen erantzunak.
 - ☐ Nafarroakoak dira.
 - ☐ bidaia bat irabaziko du.
- Agure zahar horrek ...
 - ☐ astiro-astiro dator errepidean zehar.
 - ☐ astiro-astiro zeharkatu du errepidea.
 - ☐ astiro-astiro korrika egin dute.
- Eskolako saskibaloit-taldeko entrenatzaile berri hori...
 - ☐ ez du saskibaloiaz ideiarik ere.
 - ☐ asko dakite.
 - ☐ oso-oso zorrotza da.

14 SUBJEKTUA ETA PREDIKATUA. Asmatu predikatu hauetarako subjektuak.

- planeta berri bat aurkitu dute Eguzki-sisteman.
- ipuin ederra kontatu die umeei.
- autografoa sinatu digu bere CD berrian.
- Everesteko gailurra zapaldu du.
- gimnastika-arietak eginarazten dizkigu astero-astero.
- barre eragin digu bertsoekin.



Perpausaren osagaiak

- Perpausaren osagaiak. Perpausa osatzen duten hitz guztiak (izenak, izenondoak, aditzak, aditzondoak...) **sintagma** izeneko multzoetan biltzen dira: izen-sintagman edo aditz-sintagman.
- **Izen-sintagma.** Izena edo izenordaina du ardatz. Perpausako subjektua da; ekintza nork egiten duen azaltzen du. Izenlagunak (*zure, etxeko...*) eta izenondoak (*polit, zikin...*) eraman ditzake.
- **Aditz-sintagma.** Aditza da erdigunea eta aditzondoak (*saltoka, ozenki...*) eta aditzlagunak (*nigana, menditik...*) izan ditzake inguruan. Perpausako predikatua da; ekintza non, noiz... gertatzen den azaltzen du.
 - *Zure txakur polit hori* (izen-sintagma, subjektua) *saltoka dator nigana* (aditz-sintagma, predikatua).



S, X, eta Z noiz erabili

- Hitz batetik sortzen diren hitzak jatorrizkoa bezala idazten dira:
 - *ikasi: ikasle, ikasgela; izen: izendegi, abizen...*
- **S** letraz idazten dira **-tasun** atzizkia duten hitzak:
 - *maitasun, alaitasun, gaitasun...*
- **Z** letraz idazten dira **-zale**, **-kizun** eta **-ezin** atzizkidun hitzak:
 - *musikazale, eginkizun, amaiezin...*
- **X** letraz idazten dira **-xka** atzizkidun hitzak:
 - *liburuxka, herrixka, berdexka...*

1 S eta Z. Jarri atzizki egokia hitz bakoitzari eta berriatzi osorik.

-tasun -zale

- | | |
|--|---|
| ■ argi + <input type="text"/> ➤ <i>argitasun</i> | ■ musika + <input type="text"/> ➤ <input type="text"/> |
| ■ abentura + <input type="text"/> ➤ <input type="text"/> | ■ aska + <input type="text"/> ➤ <input type="text"/> |
| ■ berezi + <input type="text"/> ➤ <input type="text"/> | ■ txantxa + <input type="text"/> ➤ <input type="text"/> |
| ■ egoki + <input type="text"/> ➤ <input type="text"/> | ■ alai + <input type="text"/> ➤ <input type="text"/> |

2 S eta Z. Idatzi definizio hauei dagozkien hitzak, **-ezin** atzizkia erabiliz.

- Jasan ezin dena:
- Ikus ezin daitekeena:
- Ezaba ezin daitekeena:
- Busti ezin dena:
- Ahaztu ezin dena:
- Ase ezin den pertsona:

3 S, X eta Z. Osatu esaldietako hitzak, **s**, **x** edo **z** idatziz.

- Ko taldeko herri ka batean bi i da, herri txiki-txiki batean.
- Ika tetxe honetan po ik egoten gara ika le eta iraka le gu tiak.
- ure logela batzea, hori da ure gaurko eginki una.
- Bai iku ki un aparta uda keneko ho to gorri ken ederta una!
- Anaiak o o gu tuko du telebi ta iku tea: telebi ta-
 alea da benetan!

JAKIZU

- S, x eta z txistukariak ez dira berdin ahoskatzen eta hitz egitean ongi bereiztea komeni da.



Uretan plast!

Uda ez da bakarrik eguzkia hartzeko edo mendira igotzeko. Uraren freskotasunean murgiltzeko gonbita luzatzen du eguraldi onaren berotasunak, eta horregatik, urteko sasoi hori oso egokia da uretan egiten diren kirolean aritzeko.

Hondartzako zaratatik eta mendiko izerditik urrun, Euskal Herriko kostak aukera ematen du ur azpian dagoena arakatzeko. Nahikoa da horretarako portua daukan herri batean zer enpresak eskaintzen duen zerbitzu hori ikustea. Arduradunari arretaz entzun, arnasa hartu eta plast!

Bi itsaspekaritza mota daude. Apnea (apnoia, grezieraz arnasarik gabe) izenekoan batere laguntzarik gabe urperatzen da urpekaria, aurretik ahalik eta arnas gehien hartuz, berriro arnasa hartzera atera behar duen arte. Scuba izenekoan (ingelesez, Self Contained Underwater Breathing Apparatus), airez betetako botila bat eramaten du itsaspekariak bizkarrean, eta horri esker behin eta berriz ur-gainazalera atera gabe ibil daiteke urpean.

Bi mota horiek kirol-itsaspekaritzari dagozkio, eta bietan gehienez ur azpitik 40 metro jaitsi daiteke. Uretan murgiltzeko modurik arruntena eta zaharrena apnea da. Mundu guztiko hainbat kulturatan ohikoa da uretan sartzea elikagaiak (arrainak, krustazeoak...) edo beste baliabide batzuk lortzeko (perlak, koralak, itsas belarrak...). Uretan



sartzeko berez ez da behar ezer berezirik (arnasa hartzea ez ahaztu!), baina kirol-jarduera bat den aldetik, apneak badu gutxieneko materiala: betaurrekoak, oinetako hegalak, arnasarako hodia (snorkel esaten zaio ingelesez), pisua ur azpian errazago mantentzeko (gorputzak gora egiten du berez ur azpian), eta behar izanez gero, neoprenozko jantzi berezia.

Scubari dagokionez, oinarrizko gauza horiez gain, airedu botila gehitzen zaio. Komenigarria izaten da, gainera, bi neurgailu eramatea: ur-gainazalera dauden metroak neurtzeko, eta botilan zenbat aire dagoen neurtzeko. Kirol-urpekaritza ez da arrisku handiko kirola, segurua da berez. Ardura handiz aritu behar da, ordea, gizakiaren toki lur gainean dagoela ahaztu gabe. Uretan sartu aurretik, prestakuntza egokia jaso behar da urpekaritza-eskolek ematen dituzten ikastaroen bidez, materiala ondo ezagutu eta segurtasun-neurriak zein diren jabetu gaitezen.

Jon Ordoñez. *Kontaizu* aldizkaria
(moldatua)



JAKIZU

AZALPEN-TESTUA

- Azalpen-testuetan edozein gaiari buruzko informazioa era argian eta ordenatuan azaltzen dira.
- Egileak datuak azaldu egiten ditu; ez du bere iritzia ematen.
- Zenbait mota daude; sailkapenezko azalpen-testuak gaiaren barne-sailkapena azaltzen digu.

1 Erantzun galdera hauei.

- Zertarako murgildu ohi da hainbat kulturatako gizakia uretan?
- Zein da uretan murgiltzeko modurik arruntena eta zaharrena?
- Zer behar da apnearen kirol-jardueran aritzeko?

2 Zer esan nahi du *apnea* izenak? Aukeratu.

- ☐ Ingelesezt botila esan nahi du.
- ☐ Grezieraz arnasarik gabe adierazten du.
- ☐ Ingelesezt arnasarako tutua esan nahi du.

3 Adierazi esaldi hauek egia ala gezurra diren.


- Scuba izena ingelesezko esaldi batetik dator.
- Scuban aritzeko aire-dun botila baino ez da behar.
- Scuban apnean baino sakonago sartu ahal dira urpekariek.
- Kirol-urpekaritza ez da arrisku handiko kirola.

4 Zertan du urpekaritza mota bakoitza? Zein da moten arteko aldea? Azaldu zeure hitzak erabiliz.

5 Zer adierazten dute testuko hitz hauek? Azaldu.

- arakatu
- elikagai
- neurgailu

6 Osatu sailkapen hau koadernoan, testuko informazioarekin:



7 Nolakoa da irakurri duzun azalpen-testua? Aukeratu.

- ☐ Egoera arazotsu baten konponbidea azaltzen du.
- ☐ Gai baten inguruko informazioa ematen du.
- ☐ Zerbait gertatzeko arrazoiak edo kausak azaltzen ditu.

EKIN IDAZTEARI

8 Idatzi azalpen-testu bat kirol-jarduerari buruz. Hasi honela:

- Erantzun galdera hauei:
 - Udan, zein kirol-jardueratan aritzen zara gehien?
 - Zertan datza kirol-jarduerari hori? Zer modalitate ditu?
 - Non jarduten duzu? Zer behar duzu jarduteko?
- Azaldu informazioa era argian eta bildu paragrafoetan.
- Osatu testua eta apaindu argazki edo irudiren batekin.





★ Laguna ospitalean

Ikerrek aste osoa eman du ospitalean, neumonia baten erruz.

Esan digu ez dela hain gaizki egon. Logela handi bat zuen, bainugela eta guzti. Denbora gehiena ematen zuen, baina uzten zioten ordu pare batean jolasgela egoten. Jateko orduan, ez zuen jangelara joan beharrik, ohera ekartzen ziotelako janaria. Gu Iker bisitatzerara joan ginen. Itxarongela egon ginen, sartu ahal izan arte.

Iker ondo egon da ospitalean, baina asko poztu da etxera iritsitakoan.

1 Bilatu goiko testuan gela motak. Ondoren, adierazi zer egiten den gela bakoitzean.

2 Osatu hitz elkartuak, bi zutabeetako hitzak lotuz.

lo ■	■ gela
jaio ■	■ bide
alda ■	■ zaku
lan ■	■ leku

3 Bete testuko hutsuneak alboko hitzekin.

ikasmahai
ikastetxe
ikaskide
ikasturte
ikaskela
ikastordu

Duela astebete hasi genuen. Denok geunden oso pozik berriz elkar ikusteagatik. berri bat ere badago, Uxue, eta laster egin ginen haren lagun. Oporretan margotu dute eta oso dotore dago. Gure goiko solairuan dago. Nahiko txikia denez, ez dago lekurik artean. Hantxe ematen ditugu txirrinak jotzen duen arte.

4 Osatu hitz elkartuak, adibidean bezala.

■ ikusi + erraz: <i>ikuserraz</i>	■ sendatu + ezin:
■ ulertu + erraz:	■ pentsatu + ezin:
■ ezkondu + berri:	■ neurtu + gaitz:

5 ESAPIDEAK. Adierazi zein hitz dagokion esapide bakoitzari.

moldakaitza sineskaitza aldagaitza jaioberria

- Gauza berrietara egokitzen ez dena:
- Nekez aldatzen dena:
- Argia lehen aldiz ikusi duena:
- Burua lehengo lepotik duena:

JAKIZU

■ Aditzoin bat eta izen bat elkartzen direnean, **izena** sortzen da:

➤ sal + toki: *sal/toki*.

■ Aditzoin bat eta izenondo bat elkartzen direnean **izena nahiz izenondoa** sor daitezke:

➤ jaio + berri: *jaioberri* (izena); ikus + erraz... *ikuserraz* (izenondoa).

■ Aditzoina **aditzaren erroa** da:

➤ *saldu*: *sal* (aditzoina).



JAKIZU

- **Bi literatura mota** dau-de: ahozkoa eta idatzizkoa.
- **Ahozko literatura** zahar-rragoa da. Ahoz aho igar- ro da, mendeetan zehar.
- Ezagutzen den lehen **li-teratura**-testu **idatzia** Kristo aurreko VII. mende-koa da: *gilgameshen olerkia*.

Irakurle euskaldunari

Haurra nintzenean entzun ohi nituen, guztiz txunditurik eta pozez zoratuta, amonen ipuinak.

Sinesten nituen ipuin haiek egia handia balira bezala, adibidez, Peru eta Mariaren ipuin barregarri eta sustraigabeak; behin eta berriz entzunagatik, ez nintzen inoiz aspertzen, eta ez nien bakerik ematen amona gaixoei, berriz eta berriz kontatzeko halako ipuinak. Ipuin ero haiek hainbat atsegin eman zidaten haurra nintzela. Pen-tsa zenbat eztitu zen nire bihotza, nagusi egitean, liburu batean bil-durik irakurri nituenean ipuin haiek!

Txikitan algaraz eta pozez entzuten nituen azeriaren asmo, gaiztakeria eta ibilerak. Nagusitan, berriz, ipuin haietako ateraldiak eta bukaera ederrak irakurtzean, ohartu nintzen, ipuinaren oskola edo azala hautsita, barruan zegoen mami gozoaz. Erle zorionekoarekin oroitu nintzen: erleak lore guztietatik, baita txikienetatik edo hain eder ez direnetatik ere, eztia atera ohi du, eta gero erlauntzean abaraska egiten du.

Irudipena dut entzuten ari naizela mutil eta nesken barre eta algara gozoak ipuin haiek irakurri edo entzunez batera, eta nola gero isildu eta harrituta bezala geldituko diren, ipuinak irakatsi nahi diena ulerturik.

BIZENTA MOGEL, *Ipuin onak* bildumaren sarrera (moldatua)

1 Erantzun galdera hauei.

- Nola jasotzen zituen txikitan ipuinak Bizenta Mogelek? Norengandik?
- Non aurkitu zituen txikitan entzundako ipuinak?
- Zerekin konparatzen du Mogelek ipuinen entzule edo irakurlea?

2 Osatu idazlearen esaldi hauek.

- Ipuin haiek sinesten nituen, handia balira bezala.
- Nagusitan ohartu nintzen ipuin haien barruko gozoaz.
- Isildu egin dira neska-mutilak, ipuinak nahi diena ulerturik.

LITERATURATIK HARAGO



Literatura molde berriak

Ikusi dugunez, antzina literatura ahoz ematen zen. Idazketarekin iritsi zen literatura-testuak irakurtzeko aukera. Gaur egun, teknologia berrie-kin, literatura bide berriak arakutzen ari da. Horren adibide da Fernan-do Morillo idazleak hainbat artistarekin batera sortutako *Itzalen sua* li-buru interaktiboa. Hitzak entzun edo irakurtzeaz gain, irudiz eta musikaz lagundutako istorioa da.

- 3 Bilatu youtuben *Itzalen sua* book-trailerra eta azaldu zeri buruzkoa den.




1 Irakurri testu hau eta erantzun galderei.
Zotina, bai gauza gogaikarria!

Baietz jakin zotina kentzeko trikimailuren bat! Baina, ba al dakizu zotina nola sortzen den? Ez? Adi!

Zotina urdaila lanean ari denean bakarrik sortzen da. Izan ere, urdaila eta diafragma, birikak airez betetzeko eta husteko erabiltzen dugun muskulua, oso gertu daudelako gertatzen da hori. Birikak airez betetzean, diafragma uzkuritu egiten da, eta birikak hustean, berriz, zabaldu. Egoera normalean, arnas erritmoa erregularra da. Baina digestio-garaian urdaila gehiegi mugitzen bada, diafragmak kolpeak jasotzen ditu eta, kolpeen ondorioz, kontrolik gabe uzkuritu edo zabaltzen da, eta airea kolpeka ateratzen da biriketatik. Horixe da zotina: biriketatik nahi gabe kanporatzen dugun airea.

Zotina kentzeko modurik onena ezusteko handi bat hartzea da.

Beste erremedio batzuk ere ba omen daude, baina hori da niri zotina kentzen didan bakarra!



- Noiz sortzen da zotina?
- Zergatik gertatzen da hori?
- Zer da zotina berez?
- Azaldu zure hitzez nola sortzen den zotina.
- Testuak dioenez, zotina kentzeko modurik onena ezusteko bat hartzea da. Ados zaude horrekin?

2 Aukeratu hitz egokiak perpausak osatzeko.

- Denbora *asko* / *luzea* eman du atzerrian.
- Bero *asko* / *handia* egiten du hemen.
- Jende *asko* / *handia* etorri da jaialdira.
- Haize *asko* / *zakarra* dabil itsasaldean.

3 Markatu ongi dagoena.

- ☐ Dendan hiru sagar kilo erosi ditu aitak.
- ☐ Dendan hiru kilo sagar erosi ditu aitak.

4 Osatu perpausak aditz jokatugabe egokiekin.

- Irakasleak (isildu) _____ esan digu.
- Guk ez dakigu ariketa hau (egin) _____.
- Oso gustuko dugu lagunekin (jolastu) _____.
- Etorriko al zara nirekin (bazkaldu) _____?
- Nahiago dut etxean (bazkaldu) _____.

5 Berridatzi perpausak, hitzak ordenatuz.

- dator. / Gizon / hori / gugana / hankaluze
- amaren / giltzak / dauzkat. / autoko / Zure / neuk
- bitxi / dira. / Hango / haiek / bizi / txori / zooan.
- jausi / gelako / baloia / da. / mutilen / Gure / erre kara

6 Osatu hitzak s, x edo z txistukariekin.

- a _____ kata _____ un
- iku _____ e _____ in
- mu _____ ika _____ ale
- _____ arde _____ ka
- go _____ o _____ ale
- bi _____ ita _____ un
- gri _____ a _____ ka
- iku _____ ki _____ un
- e _____ kaki _____ un



★ 7 Entzun *Etxeko erremedioak* testua arretaz eta erantzun. 🔊

- Nolako gaixotasuna da hotzeria? Zer ekartzen du?
- Zein bi bide aipatzen dira testuan hotzeria sendatzeko?
- Nola erabili behar da tipula?
- Nola erabili behar da berakatza?
- Zein beste etxeko erremedio aipatzen dira?
- Zein da onena, zure ustez?



★ 8 IKT. Bilatu informazioa eta idatzi sendabelarrei buruzko azalpen-testua.

- Zer medikuntza motatan erabiltzen dira sendabelarrak batik bat?
- Noizdanik erabiltzen dira?
- Aipatu zenbait sendabelar eta azaldu nola eta zertarako erabiltzen diren.

9 Osatu hitz elkartuak zutabe bietako hitzak lotuz eta idatzi osorik.

sendatu ■	■ etxe ➤
saldu ■	■ leku ➤
dantzatu ■	■ bide ➤
ikasi ■	■ toki ➤
ibili ■	■ belar ➤

10 Irakurri ipuintxoa eta erantzun galderei.

Bi beleak

Asko munduan bezala, bazi-
ren bi bele. Batek zuen
buztan luze-luzea, besteak
buztan txiki-txikia.

Buztan txikia zuen hark izan
balu luzea, nire ipuina izan-
go zen luzea, baina laburra
zuzenez, nire ipuina ere izan
da laburra

- Nolakoa iruditzen zaizu ipuina, zaharra ala duela gutxi sortua?
- Nola heldu ote da gugana?

ASKOTARIKO ADIMENAK

★ 11 Eztabaidatu ikasgelan.

- Medikuntza tradizionala beti erabili behar al da? Zergatik?
- Zer-nolako medikuntza alternatiboak ezagutzen dituzue?
- Medikuntza alternatiboak eraginkorrak al dira?
- Ba al du garrantziarik norbere burua zaintzeak gaixotasunei aurrea hartu al izateko?

★ 12 Egin idazlantxo bat zeure burua zaintzeko dituzun ohiturak aztertuz. Zer egiten duzu osasuntsu egoteko?

